Artzape

getariarron topagunea

2021eko martxoa

212. zbk

NOLAKO MOILA NAHI DUTE HERRITARREK?
MARKOS DE LA FUENTE, IRUDIEKIN JOLASTEN

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

K
KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

14-17 Elkarrizketa: Markos de la Fuente

24 Komikia: Plist&Plast

4-5	Salberak Itsaskabrari
5	Kulturaren txokoa
6	Iritzia: Nerea Kamio
7	Mariñak
8-13	Erreportajea: Getariako Portuko Plan Berezia
14-17	Elkarrizketa: Markos de la Fuente
18	Erreportajea: Errigora
20	Elan Euskadi
21	Getariako Itsas Gastronomia Elkartea
22	UrpekHARIAK
23	Harritarten txutxupeka
24	Komikia
25	Getariako hitza
26	Agenda

2021eko martxoa 212. zbk

Artzape
getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Iure Eizagirre eta Intza Gurrutxaga.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Joseba Fuentes.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Edurne Irigoien, Eider Iribar, Elan Euskadi GKE, Fuldain farmazia, Getariako Udal Liburutegia, Goiatz Lazkano, Iturzaeta Herri Eskola, Jon Ander de la Hoz, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti, Ximon Aranguren eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

JON ANDER DE LA HOZ

Aurrerabidearenak

Jo eta ma geratu ninduan aurreko batean, Zigor, adiskide batekin Getariako Portuko Plan Bereziaren inguruan ari ninduala: "Badakik, bizimodu honetan etorkizunari erreparatu beharra zagok. Kazetariok nola deitzen diozue horri? Aurrerabidea? Bada, horixe". Nire lagunaren esanetan, herriarentzat etorkizun hobeago baten oinarri izan zitekek urte gutxian moilaren —eta, luzamenduz, Getariaren— fisonomia aldatu dezakeen obra.

"Aizan, ez ote haiz gehitxo aurreratzen ari?", egin nioan galde lagunari. Izan ere, egun gutxi lehenago izan genian —neuk, bederen— plan *estrategiko* horren berri, herrian azaldutako pankarta batzuetan marraztutako QR kode bidez ARTZAPEn argitaratutako artikulua leituta.

Bai artikulu hura, bai Jaurlaritzako web orrian argitaratutako proiektuaren laburpena, eta gero, udalaren alegazioen inguruko ARTZAPEko artikuluak irakurrita, aitortzen diat ausarkeria latza hukeela neuk egitasmo hori akaberaraino eramateak ekar ditzakeen ondorioen inguruan aritzea. Ez nauk ingeniaria —ezta hurrik eman ere!—, baina hitza diat ogibide, eta *aurrerabidearena* gogoan kateatuta geratu zitzaidakean.

Ez bainauk ingeniaria, baina bai kalezale porrokatua. Eta urte amaieran moilan ehunka ordu sartutakoa ere bai. Eta jabetzen nauk herri honek *aurrerabiderik* izan badu, moila zaharreko kaien erabilera baxurako eta artisau arrantzarako bideratua izatetik heldu dela. Udalak alegatu duen bezalaxe. Eta esango diat zergatia, xehe-xehe: herritarrak elikatu dituelako.

Eta bizi behar dik pertsonak, noski, eta horretarako aisiak behar dik bere lekua. Aisialdiko ontziez ari nauk. Jakin bazekiat 211 laguneko itxaron zerrenda dagoela. Eta haiek ere badutela gozatzeko aukera, zer kristo. Galdera dek, ordea: zein kostutan? Herriko haurrei hondartza zati garrantzitsu bat kentzearenean? Aurrerabidea izango dek, akaso: zenbat lagunentzat... hori beste kupeleko sagardoa dek.

Ondotxo zekiat, halaber, aparkalekuekin dagoen arazoa. Jakingo ez diat, bada, orduak igaro dizkiadanean moilan itzulinguruka. Ez nauk ingeniaria, ez, eta auskalo zein konponbide duen horrek. *Azpiegitura berri bat izatea*, pentsatuko dik zenbaitek. Auskalo. Nire iritzian, eta astindu nazala nahi duenak —iritzia publikoki azaltzearen kostua hori dek, azken finean—, egituraketan sakontzeak nahiko aterabide badik, *azpi* aurrizkia gehitzen aritu gabe.

Izan ere, 555 aparkaleku berri egiteak, naturan duen kostua gehituta, zer ekarriko ziok herri honi? Aparkalekuen arazoa arintzea? Horretarako bi gauza egin behar dituk: aparkalekua, eta *checkpoint*a. Bestelakoan, lehen adina ez, 555 (x 5, aukeran) lagun gehiago helduko baitituk Getariara, kale eta portu aurrez masifikatuetan oztopo lasterketak antolatzera.

Horrek guztiak bizi kalitatea hobetu dezakeela usteko dik bateren batek. Aurrerabide malapartatua. Neu motza, agian, baina azalduko ahal dit norbaitek: zer aurrerabide eta zer aurrerabideondo?

ZIGOR SAIZAR

Aurrera bidean... getaiarron independentzia

Aurreko *Salberak Itsaskabrari* ziztadan norberaren Getaiko paisaiei buruzko hizpidea eman nian eta nagok hik oraingo honetan aipatzen duan "aurrerabide" interesatu hauek gure herriaren paisaia izorratzeko besterik ez dutela balioko.

Eta galderak zetozkiak kontrako eztarrira: zein demontrek egin dik Plan Berezi hori? Eusko Jaurlaritzak, itxuraz. Baina Eusko Jaurlaritzarentzat plana egin duen funtzionario-ingeniariei nork agindu die holako egitasmo bat diseinatzeko? Zeinen mesedetan? Herritarroi, getaiarrontzat aurrerabidea bada, galdetu al zaigu nolako egitasmoa nahiko genukeen gure herrirako? Eta gure herritarren ordezkariak udalean

badizkiagu, galdetu al zaio udalari herrirako zein den aurrerabidea? ARTZAPEko artikulua irakurrita eta udalak jarri dituen alegazioak aztertuta, bazirudik ezetz.

Baina, Jonan, kontu hau ez dek gaurkoa, ez horixe. Aspalditik ezin ulerturik nabilek Getaia bezalako herri txiki baten eremuan zenbat administraziok sartzen duen eskua (intentzio txarrik gabe, eh!): Madrileko *Costas* eta Arrantza; Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena; Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurumena; Getaiko Udala... Beraz, herria diseinatzeko eta herritarren "aurrerabideak" zeintzuk diren erabakitzeko begira ezak zenbat plaza! Adibide sinplea jartzearren: Eusko Jaurlaritzak erabaki behar al du moilan ezin dela zanbullaka ibili? Jesus, Maria eta Jose!

Kofradi zaharraren eraikina hor zeukagu, herriaren eraikin historikoa, hainbat getaiarren eskola izandakoa, hamaika benta egindakoak... Ez iezadak esan getaiarrentzat interesgarriak eta aberasgarriak izan daitezkeen ekimenentzako gunerik ezin dela hor eraiki! Faborez! Sormen pixka bat duten funtzionario-arkitekto eta ekintzaileekin nahikoa dek, alajaina! Boteprontoan batzuk bururatzen zaizkidak: arrantzaren transmisioa egingo duen gune hezitzailea (zergatik ez lanbide heziketako goi-mailako zikloren bat?), arrantza eta gure gastronomia lotu ditzakeena (gure kostaldean harrapatzen diren arrainak, non, noiz eta nola egiten den arrantzan eta ondoren nola lantzen diren sukaldean, hain gurea den parrilan); edo Getariako Arraun Elkartearentzako instalazio duin batzuk, gazteek gure herrian hain errotua dagoen kirolaz gozatu dezaten...

Baina badakik zer gertatzen den, adiskide? Aspaldian jakina dela dagoena mantentzea eta eraberritzea porlanaren industriarentzat ez dela interesgarria. Hauek *eskabadora* handiak sartu nahi dizkitek, Malkorbe erdia porlanez bete, kamioiak eta kamioiak hauts zuriz zikinduak... Hoientzat ziur Eusko Jaurlaritzaren Plana oso berezia dela, nola ez. Eta guri, herritar xumeoi, esango zigutek aurrerabidearen izenean egiten dutela. Kontra egonez gero, nostalgiko hutsa deituko diate, atzera begira dagoen *karka* haizela, azpiegitura faraonikorik egin gabe ezin dela etorkizuna eraiki...

Aurrera bidean... hobe izango genikek, noizbait, gure herriaren erabakietan subiranotasun osoa eskuratzea. Noizko getaiarron independentziarako erreferenduma?

JOXI ERAUSKIN

Nik kantatu eta dantza egiten du mendiak

Irene Sola idazle katalanak Europar Batasunaren literatura saria eskuratu zuen 2020ean liburu honekin. Kataluniako Pirinioetan kokatzen den eleberri honetan guzti-guztiek dute ahots propioa: pertsonak mintzo dira, esaterako, lurralde horretan bizi direnak eta bizi izan direnak, hilda daudenak, nekazari olerkaria, seme-alabak bakarrik hezi beharko dituen alarguna; baina hodeiak ere mintzo dira, eta orkatzak, maitagarriak, laminak, urkatutako sorginak, txakurrak, perretxikoak... natura bera osotasunean. Denak mintzo dira. Ikuspegi guztietatik kontatzen da historia, erritmo azkarra eta arina duen eleberri berezi honetan.

Bi heriotza bortitz jasaten dituen familia baten inguruan idatzi du idazleak narrazioa, bertan txertatuz irudiak, olerkiak, beste hizkuntza bat... Mundu ikuskera ugari horien ondoan hitzek, literaturak, irudimenak duten ahalmen magikoa agerian geratzen da, nobelari bizitasun osoa ematen diotelarik.

NEREA KAMIO

Harremanak eta turismoa

Getariatik kanpoko bikotea —itxia, irekia, hirukotea, txorta-laguna...— duen edonork jakingo du turismoa askotan ez dela Txinara edo Indiara joatea, ezta Madrilera edo Asturiasera ere. Urrutira joan gabe, bat-batean errepide berriak zeharkatzen hasten zara eta bat-batean deskubritzen duzu *polleriatik* haratago Iraeta existitzen dela, errepidetik Aizarnarako bidea jan gabeko eguna baino luzeagoa dela, Oikia inguru horretan badela Zubialde bat. *Ojo*, herri bat iragartzen duena bezalako kartel batekin.

Azken hau inoiz entzun gabea, hauteskunde gauetako zerrenda luzeetan ere inoiz ikusi gabea, hor hasten dira zalantzak: *Herri bat ote da? Baina nola egongo da etxetik hain kilometro gutxira herri bat inoiz entzun gabea? Baina orduan zergatik dauka herri-izaerako kartela sarreran? Oikia, Arroa, Endoia, Matxinbenta eta Nuarbe ezagunak ditugu, baina Zubialde?*

Bai, Wikipediak argitu dit Aizarnazabalgo auzo bat dela, 64 biztanle dituela, bai 2008an, behintzat. Eta koadrilakook, lasai, ez dizuet-eta Aizarnazabalekin bezainbesteko latarik emango Zubialderekin —Indian eta Australian egon, eta Aizarnazabalen inoiz egon ez izana ezin nuen eraman eta ez nuen/zuten bakerik izan iritsi nintzen arte—. Baina berriz ere gauza bera datorkit burura: bidaiatzearekin ahoa betetzen zaigu eta gure bazterrak ezagutu ere ez. Akaso zerbait ikasiko genuen mamorro honekin.

Eta ez pentsa gure kostako herri politarekin ere antzekorik gertatzen ez denik... Egundo tokatu zait sekula San Anton mendira igo gabeko urola kostarrari gidari lanak egitea. Han gindoazen moilan barrena, ni bularra puztu-puztu eginda ikusi behar zuenak sortuko zion lilurarekin pentsatzen, eta hasteko lonja zaharren tartetik eraman nuen. Ketarri ondoko aldapa albo batera lagata, ate urdineko lonjaren alboko eskailera malkartsu zein xarmangarrietatik igo ginen, zuzenean lehenengo kurbara ateraz. Eskailerak igotzen hasi bezala pentsatu nuen ez zela ba txikitan imajinatzen nuen bezain magikoa txoko hura, nolabaiteko dezepzioa izan nuen, baina tokiak xarma handikoa izaten jarraitzen du eta abentura hasi besterik ez zen egin.

Behin bide ofizialean sartuta, goraka jarraitu genuen eta segituan: "Begira, hemen-hemen!. Hau sorgin bat da eta hor goraxeago dago bere ohea; itsasoak egindakoa da", gero. Baina hari ere begiratzen nion, eta neuri ere kosta sorgin baten aurpegia ikustea.

Gorago, arrantzaleak sarea bizkarrean hartuta. Faro azpian, eskailerak jaitsi eskuinetara eta jardin botaniko bat zegoen belardia. Eskailerak bakarrik geratzen ziren koloredun eremu hartatik. Goraka jarraitu eta eskailera zabal horietatik Katxapora. Ikurrina erdi-puskatuta baina *pintada*k behintzat han zeuden. Beheraka, noski herri aldeko bidetik. Zuhaitz egunean landatzen genituen zuhaitzak han egongo ziren, eta nostalgia/harrotasun puntu bat sentitu nuen, baina bidea goroldioz josita zegoenez, ezin lasai kontenplatu. Balkoiak nahiko ondo, bisaiak zer esanik ez, baina zilindrora (batzuentzat trenera) heldu eta ai ene, non zegoen guk eskalatzen genuen burdin sendozko estruktura? Herdoilak janda eta kasik deseginda. Jada ez dakit tristura puntuagatik edo, Manuelen emakume biluzi etzana ere ez nuen ikusi. Bukatzeko Errege Magoen koba han zegoen behintzat eta hori ere kontatu nion barrualdekoari.

Zaintza eta maitasunaren kateak

Alferrik izango da martxoaren 8an kalera ateratzea, egunero, gizartea eraldatzen eta gure eskubideen alde ezer ez badugu egiten. **Galdetu zure buruari, *zer egin dut nik aurten nire bizitzan, etxean, familian, bikotean, lantokian, elkarte eta taldean, kuadrillan, berdintasun gehiago izan dezagun?***

M8aren jatorria XIX. mendean emakumeak euren eskubideen alde borrokan hasi zirenekoa da. Sufragistek emakumeen boto eskubidea, goi mailako ikasketak, edo euren diruaren jabe izateko eskubidea aldarrikatu zituzten. Garai berean, nagusi ziren industria sektoretako sindikatuetan antolatutako emakumeak grebak egiten hasi ziren: kotoi sektoreko langileak, jostunak, lisatzaileak... 10 orduko lanaldia, soldata igoerak eta lan eskubideak aldarrikatzen zituzten.

Clara Zetkinek bultzatutako Emakumeen II. Internazional Sozialistan elkartuta, ehunka emakumek adostu zuten Emakumeen Eguna izendatzea. 1911ko martxoaren 25ean New Yorken 123 emakume, asko umeak, eta 23 gizon hil ziren, Triangel lantegian izandako sutean. Langileek baimenduriko atsedenik har ez zezaten, lantegiko ateak itxita egotea ohikoa zen. Sutea hasi zenean ezin izan zuten ihes egin. 62 lagunek leihoetatik salto egin zuten sugarretatik ihes egin nahian. Harrezkero, lanean osasun eta segurtasun neurriak ezartzeko legedia garatzen hasi zen.

Bi mundu gerrak eta gero, mugimendu feministaren 60. hamarkadatik aurrera indartu zen. Ordutik, martxoaren 8a kalera atera eta borrokarako eguna bihurtu zen. Gero, 1977an Nazio Batuen Erakundeak martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Egun gisa izendatu zuen.

2018an lehen emakumeen nazioarteko greba deitu zen *Emakumeok* planto* lelopean. Greba kontzeptua eraldatu zuen, lan produktibo zein erreproduktiboetako langileak planto egitera deituz. Hots, bai lan ordaindukoek bai ordaindu gabekoek, etxeko zaintza lanetakoek esaterako, grebara jo zuten kapitalaren logikari bizitzaren logika gainjarri behar zaiola aldarrikatuz. Horrela, zaintza krisia, pobreziaren feminizazioa eta indarkeria matxista salatu ziren, gizarte eredu eta eredu ekonomikoaren eraldaketa aldarrikatuz. Sexuaren araberako lan banaketarekin amaitzea, zaintzaren garrantzi eta premia azpimarratzea, atzerritarrei buruzko lege gogorra eta kolonialismoa salatzea eta indarkeriarik gabeko bizitzeko eskubidea aldarrikatzea ere izan ziren helburu. Hurrengo urtean, 2019 osoan zehar, egoitzetako langile, garbitzaile eta jangeletako begiraleek greba eta mobilizazioekin jarraitu zuten eta martxoaren 8a heldu zenean, bigarren urtez jarraian, greba feministaren deitu zen.

Mobilizazioak oso arrakastatsuak izan ziren, gizartea harrituta uzteraino. Tamalez, aldarrikapenak gauzatzeke jarraitzen dute. Gainera, pandemiak egoera are eta bortitzagoa egin du, eta lehen ere zaurgarriak zirenen egoera are okerragoa da orain. Gizarteak emakumeengan uzten du zaintza. Nork zaintzen zaitu? **Bere bizitzako zerri uko egin behar izan dio zu zaindu zaituenak?**

Zaintza hau doan egiten da, askotan maitasunaren aitzakian, eta ordaindua denean, lan baldintza prekarioekin eta esklabutzan egiten da. Horrela, egungo zaintza ereduak emakumeak pobretu egiten gaitu eta gizartean parte hartzeko denbora lapurtzen digu, politikarako, kulturarako zein aisialdirako denborarik gabe utziz, eta gizonekiko menpekotasun ekonomikoan, indarkeria matxistaren aurrean eskuak lotuta utziz.

Kateak askatzeko martxoaren 7an frontoian elkarretaratzea egingo dugu, kaleetan elkartuko gara!

Portuko Plan Berezia

HAUTSAK HARROTU DITUEN ASMOA

Lehenengo onespena emanda, Eusko Jaurlaritzak 2020ko abenduaren 10ean jarri zuen jendaurrean Getariako Portuko Plan Berezia. Jaurlaritzaren arabera, "plan berezi honen xedea da Getariako portu-eremuaren antolamendua eta zonakatzea zehaztea". Hainbat desadostasun tarteko, udalak eta Herriaren Moila izendatutako herritar talde batek alegazioak jarri dizkiete proiektuari. Lanek, bestalde, moilako negozio batzuengan ere eragingo du.

TESTUA
INTZA GURRUTXAGA

Proiektuaren zirriborroaren dokumentuan, antolamendurako bost alternatiba jaso ziren. Alternatiben inguruan egindako balorazioan ondorioztatu zuten "portua handitzeko irtenbiderik egokiena laugarren alternatiba dela, hots, dike bat eraikitzea gaur egungo portuaren iparraldean (San Anton mendiaren iparraldeko puntatik hasita)". Egungo egoera kontutan hartuta, ordea, lehenengo alternatiba dela egokiena erabaki dute, "izan ere, ez da hauteman arrantza-portua handitzeko premiarik, eta gaur egungo kaiak berriz antola daitezke, ur-kiroletako premiei modu egokiagoan erantzuteko".

Planean zehazten diren eginbeharrak aurreikuspen bat dira, eta herritar batek baino gehiagok plazaratu du asmoak gauzatuko direnaren zalantza. Haritz Alberdi alkateak herritarrei adierazi zien plana onartzeak ez lukeela esan nahi bertan agertzen diren lanak egingo lirakeenik, baina bai horiek egiteko aukera egongo litzatekeela.

Planak zehaztapen eta xehetasun ugari ditu, *Dokumentu Teknikoa* izeneko txostenak, soilik, 135 orrialde dauzka.

Txostenean bertan azpimarratzen diren gaiak kontuan hartuta, ondorengo puntuen bitartez, hauxe da planaren irudi orokorra:

Malkorbe hondartzari zati bat kentzea eta kaiaren azalera handitzea

Modu horretara, ur-kiroletako kaiaren azalera 400 metro karratu handiagoa izango litzateke. Lur zati hori "jarduera horretarako beharrezkoak diren zerbitzuak antolatzeko" erabiliko litzateke.

Bestalde, txostenean aipatzen da beharrezkoa izan daitekeela harri-lubeta batekin edo antzeko metodo baten bidez, babes-neurriak hartzea kaia berrian, "gaur egun toki horretan olatuek ematen duten kolpea arintzeko; halaber, babesa jar daiteke hondartzaren aurrean neurri partzial modura, itsasoaren maila igotzen bada ere".

Kaiaren azalera handitzea Elkano Arrantzaleen Kofradiaren aurrean

Ur-geruza txikitu eta lurzoruaren azalera 200 metro karratu inguru handituko litzateke. "San Antonetik datorren sarbidearekiko loturan, iparraldeko dikearen hasierako ibilgailu-zirkulazioa hobetzea du helburu".

Kaien edukiera

Kofradiako kaian bost metroko zerrenda arrantza erabilerarako mugatuko litzateke; arrantza-ontzien ontziratzeak, lehorreratzeak eta zamalanak egiteko.

Eraikinen erabilera

Plan bereziak dioenaren arabera, erabiltzen ez diren eraikinak birgaitzea da xede garrantzitsuenetarikoa. Eraikinen baldintzen eta ezaugarrien arabera, kontserbatzea edo eraistea erabakiko litzateke.

Hala, kofradia zaharraren eta izotz-fabrika zaharraren eraikinak erabilera mistorako izango lirateke. Hainbat jardueratarako izan litezke: "produkziokoak (arrantza), ekipamendua, aisia, olgeta, hirugarren sektorekoak (jatetxeak, ostatua, arrantzaren sektoreari eta arrantzaren transformazioari lotutako jarduerak, arlo horretako ikerketa- eta garapen-jarduerak...), ontzien mantentze-lanak, salmenta edo horniketa, eta antzekoak".

Era berean, Tintaleku eraikina kirol-klubak, bela- eta urpekaritza-eskolak egiteko eta bestelakoetarako (biltegiratzea...) erabiltzea proposatzen da. Lonja berriak berrantolatzeko beharra ere aipatzen da.

Urbanizazio baldintzak hobetzea

Atal honetan, "paseatzeko eta harremanetarako eremuak diren heinean", kofradia zaharreko kaia eta ur-kiroletako zerbitzuen ingurunea hobetzea proposatzen da.

Hirigunearen eta portuaren arteko oinezkoen loturak hobetzea

Proposamenetako bat Arnao Jenerala kalearen iparraldeko muturra eta portua modu zuzenagoan, "garai batean bezala", lotzea da. Horretarako, "Itsas Etxe eraikinaren eta kofradia zaharraren artean eskailera bat" jarriko litzateke.

Beste ekintza Aldamar kalearen (Tintaleku eraikinetik gertu) eta moilara sartzeko errepidearen artean igogailu bat jartzea da.

Txostenak, "alderdi berezi" modura, ur-kiroletako zerbitzuetarako, hegoaldean, eraikuntza berriak egiteko proposamena jasotzen du. Era berean, baita ekialdeko dikean eraikin berri bat egitekoa ere; hain justu, kofradia zaharraren aldameneko egungo eraikinetan egiten diren jarduerak (izotzaren produkzioa eta kutxen biltegiratzea) lekualdatzeko. Eraikuntza horiek guztiek, gehienez, hamar metroko altuera eta hiru solairu (lurrazaletik gora) izan ahalko dituzte.

Ibilgailuen aparkalekuei dagokionez, lurpeko bi aparkaleku egitea proposatzen da. Guztira 555 plaza inguru sortuko lirateke: "lurpeko hiru solairutan, 300 plaza inguru kirol-portuan (Gurutze Gorriko eraikinaren azpiko eremuan, gutxi gorabehara). Beste 255 plaza kofradia zaharreko kaian, lurpeko hiru solairutan, kokatuko lirateke".

Plan Berezia behin betiko onartzen denetik, aurreikusitako obrak egiteko, oro har, zortzi urteko gehieneko epea zehazten da.

Desadostasunak

Proiektua jendaurrean jarri zenetik, 45 laneguneko epea egon da proposatutakoari alegazioak egiteko, eta udalak 13 arrazoibideko helegite bat helarazi dio Jaurlaritzari. Otsailaren 18an, *Udala Informatzen* saioa telematikoki egin zen, eta bertan, Haritz Alberdi alkateak egindako alegazioen inguruko azalpenak eman zizkien herritarrei.

Planaren helburua ez du partekatzen Udalak, izan ere, Eusko Jaurlaritzak dio azken hogei urteetan behera egin duela arrantza-ontzi kopuruak zein tamainak eta ez dela aurreikusten joera aldaketarik. Alberdik adierazi zuenez, "ezin da hori ontzat eman", horregatik joera aldaketarako "moila zaharreko arrantzako kaien urgeruzaren erabilera baxurako eta artisau arrantzarako mantentzea nahitaezkoa" dela jasotzen du alegazioak.

Kirol arrantzari dagokionez, herrian dagoen zaletasuna eta ohitura azpimarratu zituen alkateak, "ondare immaterial" gisa, eta getariarren eskaerari erantzuteko nahikoa amarraleku daudela, baina "modu egokian ordenatu" behar direla irizten dio Udalak.

Eraikin berriak egin ordez, moilan dauden zenbait, kofradia zaharra esaterako, birgaitzea nahi du Udalak. Hala, espazio horretan aloimendua jartzea debekatzeko eskaria txertatu da arrazoibideetan. 2020an idazten hasitako Turismo Iraunkorreko Plana ardatz hartuta, Getarian dagoeneko aholkatutakoa baino plaza gehiago daudela argudiatu du. Bestalde, itsas etxe bat bezalako azpiegitura bat begi onez ikusiko luke.

Kofradi zaharra oso egoera kaskarrean dago gaur egun.

Tintalekuaren gainaldea erabilera publikokoa izatea eskatu du udalak.

> ***"Ez dugu subjektu pasibo bat izan nahi; herriaren parte garen bezala, moilaren parte izan nahi dugu".***

Antzeko irizpideari jarraitu dio Udalak aparkalekuei dagokienez ere, "goiko aparkalekuak ordenatzeko bada eta oinezko espazio irekiak sortzeko, lurpeko aparkalekuren bat egitea ondo iruditzen zaigu". Hala ere, lur azpikoak egin aurretik, egungo eraikinak horretarako erabiltzea proposatzen du.

Malkorbe hondartzari zati bat kentzearekin ere ez dago ados udala, familiak gehien batzen diren gunea delako eta eguzkiak gehien jotzen duena. Bestalde, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa lantzea eskatu diote Jaurlaritzari.

Herritar batzuen artean ere ezinegona agerikoa da. Horren adibide izan da Herriaren Moila egitasmoa. Planak sortutako hainbat zalantzek eta kezkek bultzatuta, getariar talde bat bildu eta planeko hainbat punturekiko euren desadostasuna adierazi dute. Beraien ikuspegia azalduz idatzi bat helarazi zuten ARTZAPEra, eta herriko kaleetan zehar hainbat kartel jarri zituzten *#herriarenmoila* leloarekin zein idatzi horretara bideratzen zuen QR kodearekin.

Udalak egin bezala, talde horrek ere helegite bat jarri du; bost arrazoibidez osatua. Egitasmoko kideetako batek azaldu duenez, "herria kontuan eduki gabe, negozio jakin batera bideratu nahi da dena:

"Ez dugu portua mantentzeko estrategia garbirik ikusten, eta arrantza sektorean ez dago ondorengotzarik".

kalitatezko turismoa deitzen zaion horretara. Baina azkenean, dena dirudunei begirako turismoa da, eta ez turismo herrikoi bat". Hala, Jaurlaritzak herritarren ahotsa entzun zezan sortu zuten taldea: "Ez dugu subjektu pasibo bat izan nahi; herriaren parte garen bezala, moilaren parte izan nahi dugu".

Jendea Malkorbe hondartzaren ertzean, eguzkitan.

Itsas Etxea eta kofradi zaharraren atzealdeko pasabidea, gaur egun.

Taldeak lan horiekin sustatu nahi den turismo eta herri eredua zalantzan jartzen ditu, eta eremuaren pribatizaziorako bidean lehen pausoak argi ikusten dituzte. "Besteak beste, kirol portuaren zerbitzuak hobetzeko eta edukiera handitzeko, publikoa den hondartza bati zati bat kenduko diote".

Eraikinak saneatzea begi onez ikusten dute, "ez dugu onartuko, ordea, beraien betebeharra zena guretzako kaltegarriak diren beste gauza batzuekin lotzerik".

Plan Berezi horrek herrian, jada, "itogarria" bihurtzen ari den turismoari bultzada bat emango liokeela irizten diote. "Lehengo udaran ikusi genuen herrian aulki bat bera ere ez dela libre gelditzen. Hondartzak ixten direla eta oraindik jendeak sartzen segitzen duela. Benetan, horren konponbidea da oraindik eta aparkaleku gehiago egitea?", adierazi dute.

Taldekideek herritarren artean ezinegona eta parte hartzeko gogoa sumatu dute, nahiz eta beste jarrera batzuk ere ikusi: "Guk gaia herrira zabaldu nahi izan dugu, baina modu anonimo batean aurkako jarrerak ere ikusi ditugu. Batzuk jarritako kartelak kentzen ibili dira, ez dute nahi eztabaida plazaratu".

Jaurlaritzaren txanda

Otsailaren 16an amaitu zen helegiteak egiteko epea, eta orain, alegazio guztiak aztertzeko sei hilabeteko epea du Eusko Jaurlaritzak. Portu Zuzendaritzak aurreratu duenez, "tokiko eragileek aurkeztutako iradokizunak eta alegazioak kontuan hartuta, izapidetzen ari den proiektuaren bertsioa, funtsean, aldatu egingo da; batez ere espazioen erabilera definitzeko irizpideari dagokionez".

Hala, bertsio berriak argi definitutako bi espazio bereiziko dituela azaldu du: "Bat, soilik, arrantza-jarduerarako eta bestea erabilera mistoetarako". Nolanahi ere, proiektuaren birmoldaketak 2017ko hasierako proiektua izango duela oinarri adierazi du.

"Ekimena ez moteltzeko eta udalerriarentzat beharrezkoa den jarduerari ekin ahal izateko, abian den izapidetze-epeei jarraituko die", argudiatu du Jaurlaritzak. Izan ere, bere esanetan, "Itxas Etxe eraikinaren eta kofradia zaharraren artean eskailerak jarriz, eta Aldamar kalearen eta moilara sartzeko errepidearen artean igogailu bat instalatuz, udalak portuaren eta hirigunearen arteko oinezkoen lotura hobetzea eskatzen du".



Aldaketa horiek sartuta, behin-behineko onarpena emango zaie, behin betiko onespenaren aurreko urrats gisa. Onarpena 2022 urtean etor liteke.

Eragina negozioetan

Nahiz eta moilako zerbitzu eta erakunde desberdinengana jo, ez dute denek hitz egin nahi izan. Itxas-Etxe jatetxeko Xabier Odriozolak proposatutakoarekin ados dagoela adierazi du: "Ni txikia nintzenetik moila asko aldatu da. Beti izan dira aldaketen aurkako iritziak, baina, nire ustez, beti hobera joan da. Kai-mutur berria egiteari esker, adibidez, Malkorbe hondartzara hondar pila bat iritsi zen eta gaur egungo Malkorbe, duela 28 urtekoarekin alderatuta, hirukoitza da".

Odriozola ostalaritzatik bizi da eta berak argi du, zenbat eta aparkaleku gehiago izan hobe dela, bisitari gehiago etorriko baita. "Aparkalekuekin izugarrizko arazoa daukagu. Inguruko herrietatik jendea Getariako hondartzara etortzen da, eta jatetxeetara bazkaltzera etortzen direnek ez daukate aparkatzeko lekurik. Turistentzako behar ditugu aparkalekuak, baina ez horientzat bakarrik, baita herritarrentzat ere". Udaran herrira jende pila bat etortzen dela azaldu du, baina "daukagun turismo eredua oso ona da".

Arrantza sektorean ondorengorik ez egoteak ere kezkatzen du Odriozola: "Duela 25 urtetik hona bederatzi arrantza-ontzi gutxiago daude, hemendik 25 urtetara beste bederatzi gutxiago? Eta, desagartzen badira, zer? Arrantza-ontziak desagertzen badira, herriaren bizipoza ere bai".

Maisor dendari eta Elkano arraindegiari aurreikusitako lanek ez liekete, azpiegitura aldetik, eragingo. Ainhoa Iribar, Maisor dendako arduradunetako bat, ordea, arrantza-sektorearen eta portuaren biziraupenarekin kezkatuta azaldu da. "Ez dugu portua mantentzeko estrategia garbirik ikusten, eta arrantza sektorean ez dago ondorengotzarik".

Bestalde, herriko pare bat arrantzalek azaldu digute arrantza jarduerarako onurak ekarriko lituzkeela proiektuak. "Izotz-fabrika dike berrira eramanez gero, guretzako onura izango litzateke, eskurago edukiko genuke", adierazi dute. Elkano Arrantzaleen Kofradia aurreko errepidea zabaltzea ere positiboa izango litzateke: "Horrela, kamioiek-eta leku gehiago izango lukete bertan ibiltzeko".

MARKOS DE LA FUENTE

"COLLAGEA BAINO GEHIAGO BETETZEN NAUEN ADIERAZPIDERIK EZ DUT AURKITU"

TESTUA
INTZA GURRUTXAGA

Beti bezain irribarretsu eta bizipozez beteta hartu gaitu Markos de la Fuente Moralek (1963). Ofizio jakinik gabea, denetarik egin izan du donostiarrak. Duela bost urte inguru iritsi zen Getariara, eta herriaz, bere osotasunean, maiteminduta dagoela aitortu digu. Abentura eta bidaiazalea izaki, geldirik egoten ez dakien pertsona da. Bizikleta da leku batetik bestera mugitzeko erabiltzen duen ibilgailua; ziur, inoiz kalean gora edo behera ikusi izan duzuela.

Dorrea tabernan egin dugu hitzordua. Jose Antoniok eta Agüildak bikain zaindu gaituzte eta ia goiz osoa pasa dugu bertan, solasean. Markosek 2007an ekin zion collageak egiteari, eta horien bitartez, bere bizitza iruditan adieraztea lortu du. Abenduan, bere lanak herriari erakusteko aukera izan zuen: eraskusketa egin zuen Gure Txeruren lokalean.

Noiz hasi zinen collagekin?
2007. urtean. Orduan Hendaian bizi nintzen eta nazioarteko garraiolari moduan egiten nuen lan. 24 orduko bidaiak egiten nituen, eta etxera itzultzean, astebete edo hamar eguneko atsedenaldiak izaten nituen. Hala, itzultzen nitzenean denbora izaten nuen, eta barruan nuena argazkien bitartez adierazten hasi nintzen.

Halaxe aritu nintzen hiru urtez, bidaia batetik itzultzen nintzen bakoitzean, argazkiak mozten eta itsasten. Garai hartan egin nuen obra gehien. Sortzen nuena gustatu egiten zitzaidan, ingurukoei ere bai, eta motibatzen hasi nintzen. Ondoren, Hendaiatik joan egin behar izan nuen, eta collageak egiteari utzi nion.

Gero, 2011n, haxixez betetako auto batekin harrapatu ninduten Algecirasen. Urtebetez han egon nintzen preso, baina 2012an, familia lotura dela eta, Gasteizera lekualdatu ninduten. Bertan, bi urte egin nituen eta collageak egiteari berrekin nion. Hura izan zen nire bigarren etapa. Espetxean, gainera, bi eraskusketa egin nituen.

Handik irten nintzenean, collageak egiteari utzi nion berriro eta Japoniara joaten hasi nintzen. Urtero, hiru hilabete pasatzen ditut han lanean: hilabetez, arotz modura Cinema Caravan izeneko kolektibo batek antolatzen duen zine festibala prestatzen; beste hilabetez, autoen mekaniko modura; eta beste batez, lorezain lanetan, etxez etxe sukaldatzen (marmitakoak eta pil-pila egiten) edota denboraldiz pasatako kimonoekin, snowboardeko taulentzat parafina-pastillak gordetzeko zetazko poltsak egiten marka batentzat. Bisa amaitzen zaidanerako, Euskal Herrira itzultzeko irrikan egoten naiz,

japoniarrek zuku dena ateratzen baitidate. Lehengo urtean, ordea, COVID-19a dela eta, ezin izan nintzen joan. Han collage batzuk egin izan ditut, baina ez gehiegi.

Orain, pandemia tarteko, etxean denbora asko egon behar izan dudanez, berriro ere collageak egiten hasi naiz. Getariako hau nire sorkuntzaren hirugarren etapa da.

Nondik datorkizu zaletasuna?
15 urte nituen arte, nire aita jostuna izan zen. Jostundegia gure etxe alboko pisuan zeukan eta bezerorik ez zegoenean, hara joaten nintzen. Buruan grabatuta daukat nire aitak behin eta berriz errepikatu izan zidan esaldi hau: "Markos, utzi guraize horiek, kamustu egingo dizkidazu eta". Txikitatik beraz, irrika berezia nuen guraizeekiko.

15 urterekin hasi nintzen nire lehenengo lanean. Aitak erabaki bat hartu beharra neukala esan eta Loiola auzoko (Donostia) lokal batean sartu ninduen tximinietako haize-orratzak egitera. Aitak jostundegia itxi berri zuen, beraz, bezeroentzako erabiltzen ziren *Semana* eta *Hola* bezalako aldizkari pila bat zeuden etxean. Egun batean, horiek hartu, moztu eta lokal guztia papereztatu nuen. Aita haserretu eta dena kentzen hasi zen: "Nik tximinietako haize-orratzak egiteko ekarri zaitut, eta ez hau dena papereztatzeko".

Formakuntzarik jaso al duzu?
Ez, autodidakta izan naiz. Badakit historiako margolari handienek edo onenek collagearen teknika erabili izan dutela. Azken finean, collage batek ez du zertan paperez egindakoa izan behar. Hagun —*llanta*— bat egurrezko ohol batean itsastea ere collagea da. Gauza bat hartu eta hura itsaste hutsa collagea da.

Markos de la Fuente bere lanetako bati begira Gure Txeruren lokalean.

Zein materialekin egiten dituzu?
Aldizkarietako argazkiak erabiltzen ditut. Orain, jendeak collageak enkargatzen dizkit, eta gai jakin bati buruzkoak direnean, horren inguruko aldizkariak edo liburuak ere erosi izan ditut. Behin, ezagun batek herri kirolei buruzko collage bat egiteko eskatu zidan. Liburu dendara joan eta horri buruzko liburu bat erosi nuen.

Materiala edonondik, baina paperetik ateratzen dut. Espetxean Photoshopa erabiltzen irakasten saiatu ziren, baina hori ez da niretzat. Niri guraizeak eta papera gustatzen zaizkit.

Euskarri modura, berriz, egurra erabiltzen dut. Hala, moztutako argazkiak barrako itsasgarriarekin itsasten ditut. Collageak egiteko materialak oso merkeak dira, zerbait berezirik erosi behar ez badut behintzat: aldizkari edo liburu jakinen bat... Egurra asko gustatzen zait, baina edozein euskarriren gainean egin ditzaket.

Jendeak, beraz, collageak enkargatzen dizkizu?
Bai, horiek egitea kostatzen zait gehien. Nik collageak ez ditut diruagatik egiten, plazeragatik baizik. Diruak ez du helburua izan behar, bitartekoa baizik, helburu altuago bat jarri behar da.

Diruagatik zerbait egitea gero eta gutxiago gustatzen zait. Horri buelta eman eta gauzak egiten hasten zarenean, dirua bakarrik etortzen da. Askoz errazago etortzen da, dirua ez delako helburua. Urte gehiago ditudan heinean, bizitzea errazagoa iruditzen zait. Bizitza, benetan, jolas bat da; zenbat

eta serioago hartu, gehiago kostatzen da. Serio ez hartzeak, ordea, ez du esan nahi zuzen jokatu behar ez duzunik.

Hortaz, collageak egitea ez da zure ogibidea?

Niri ziurgabetasunean bizitzea gustatzen zait, iruditzen zait benetako bizitzak hala izan behar duela. Ziurtasuna dagoenean, jada, ez da bizitza, existentzia da. Ez da berdina bizitzea, hitzaren benetako zentzuan, eta existitzea.

Nik ez daukat agendarik, ez zait planak egitea gustatzen, eta oso zentratuta nago hemen eta orainean, ez dakit bihar zer egingo dudan. Gainera, etorkizuna beti orainean biziko duzu, eta benetan existitzen dena oraina da. Iragana iragana da, eta etorkizuna ez dago gure esku. Bizitzak ekartzen dizunaren aurrean beso zabalik eta adi egon behar duzu, eta datorrenari heldu.

Nolakoa da sorkuntza prozesua?

Lehenik, collageak nire buruan sortzen ditut; ondoren, ideia gauzatu egiten dut. Nik irudimen handia dut, eta irudimena ikaragarria da, infinitua, mugarik gabea. Niri gehien gustatzen zaizkidan collageak ezer adierazi gabe dena adierazten duten horiek dira. Temakikoak izanda ere, hain zehatzak ez direnak gustatzen zaizkit.

Aldizkari bat hartu eta dena desegiten dut. Aurpegiak, autoak, eraikinak, loreak... mozten ditut, zehaztasunik gabe. Gero, collagean jartzerakoan, mozketa perfektua izaten da. Karpeta batean bereiztuta gordetzen ditut moztutako irudiak. Zer egin nahi dudan ez badakit, alegia, tematika jakin bat ez badaukat, karpetako material guztia atera eta mahai gainean jartzen dut. Egurrezko ohol bat hartu eta irudiak jartzen hasten naiz. Hasieran, ez dut ezer itsasten. Argazkiak jarri eta kendu ibiltzen naiz. Azkenean, nik nahi bezala geratzen denean, itsasten hasten naiz.

Collage guztiak, espetxekoak izan ezik, THCaren (Tetrahidrokanabinola) eraginpean egin ditut. Collageak egiten ditudanean erretzea gustatzen zait. Sendagai horrek jada naizena baino pertsona hobea egiten nau; nire izaera indartzen duela uste dut.

Zer islatzen dute zure lanek?

Nik uste dut nire bizitza irudiekin idatzi dudala. Bizi eta ikusi izandako guztia islatu izan dudala esango nuke. Batez ere Hendaian eta espetxean egindako sorkuntza nire bizitzaren metafora dela uste dut.

Nire bizitza aberatsa izan da, ez diruari dagokionez, bizipenei dagokionez baizik, eta collageak baino gehiago betetzen nauen adierazpiderik ez dut aurkitu.

Zure sorkuntzetan eboluziorik nabaritu al duzu?

Hendaian eta espetxean egindako lanen artean desberdintasunik ia ez da igartzen. Hori bai, bi aldi horietako lanak desberdin daude sinatuta.

Hendaian nengoenean *Billano* bezala sinatzen nuen, hirugarren etapa honetan ere bai. Izen hori 90eko hamarkadan ezagututako lagun italiar baten abizenetik atera nuen: Enzo Villano. Gaztelaniaz *villano* irakur daiteke, eta izen horren ahoskera asko gustatu zitzaidan. Gainera txikitatik, heroiak baino begikoago izan ditut nik bilauak. Espetxean egin nituenak, berriz, *Press Y Diario* bezala daude sinatuta; hitz joko bat da.

Getarian egindako lanetan Hendaian eta espetxean egiten nuen gauza bera egiten jarraitzen dut, izan ere, estilo hori asko gustatzen zait. Baina aldaketa edo eboluzio bat nabaritzen dut. Beraz, Getariak ere, nolabait, eragin dit.

Orain egiten ditudan collagetan askoz ere zehatzagoa naiz. Getarian, gainera, *kartulina*

sartu dut. Orain ez dut horrenbeste kolore nahasketa egiten. Oso gustura nago, eta Getarian egiten ari naizena asko ari zait gustatzen.

Eta, nola amaitu du donostiar batek Getarian?
24 urte nituenean utzi nuen Donostia, eta Zarautzera joan nintzen bizitzera. 2016ra arte, praktikan, bertan bizi izan naiz. Kanariar Uharteetan, Italian... bizi izan naiz, baina beti Zarautzera itzultzen nintzen.

2014an espetxetik irten nintzenean Aialan, Karlos Argiñanoren sukaldaritza eskolan, izena eman nuen eta erdi mailako sukaldari tekniko titulua atera nuen. Eskolan izandako sei irakasleetako bat Itxas-Etxe jatetxeko Xabi izan zen. Ikasturtea amaitzean praktikak arraina parrilan eskaintzen zuten jatetxe batean egin nahi nituela esan nien. Hala, Itxas-Etxen hasi nintzen lanean; Zarautzera joan-etorrian ibiltzen nintzen, eta gero, lekua bilatu nuen hemen. Zarautzetik Getariara etorri nintzen, eta orain, primeran nago.

30 urte inguru nituenean, arrebetako batek esan zidan, ni balitz, Getariara joango litzatekeela bizitzera. Orduan pentsatzen nuen Getarian ez zitzaidala ezer galdu. Orain nire buruari galdetzen diot zergatik ez nion lehenago kasu egin.

Momentuz, Getarian erakusketa bat egin duzu. Zer moduz irten zen?
Niretzat ikaragarria izan zen. Hiru astez, abenduaren 22tik urtarrilaren 10era egon zen Gure Txeruren lokalean. 1974an erakusketa bat egin nuen Hendaian, eta espetxean ere beste bi egin

nituen, baina ez nago nire lanak erakustera ohituta.

Getariak erakusketa egiteko aukera eman zidan, eta Gure Txeru elkartearekin, udalarekin eta herriarekin oso eskertuta nago. Min pixka bat eman didan collagen bat saldu dut eta bat edo beste enkargatu dizkidate; oso gustura nago. Herriarekin harremana izateko aukera eman dit. Izan ere, ni ez naizenez poteoan ibiltzen, herritarrekin sozializatzea zailagoa egiten zait. Jendeak sorpresa hartu du, eta etorri direnei nik egindakoa gustatu zaiela ikusi dut.

"Urte gehiago ditudan heinean, bizitza errazagoa iruditzen zait. Bizitza, benetan, jolas bat da, zenbat eta serioago hartu, gehiago kostatzen da"

Gainera, Getariako haur guztiekin konektatu dut, hori da gehien gustatu zaidana. Izan ere, nire anaia Borisekin batera egindako skate ohol bat zozketatu nuen erakusketa bisitatzera joandako haurren artean. Ume pila bat etorri zen, eta orain kaletik noanean agurtu egiten naute. Beti izan dut lotura berezi bat haurrekin, izan ere, nik umea izaten jarraitzen dut.

Beste erakusketaren bat egiteko asmorik ba al duzu?
Bai, Aste Santuan egin nahiko nuke. Dagoeneko eskatu diot baimena Gure Txeruri, eta lokala libre badago, egitea gustatuko litzaidake. Gainera, aurrekoan erakutsi ez nituen collage berriak aurkeztuko nituzke, asko ari bainaiz sortzen.

Amaitzeko ere hitz esanguratsuak izan ditu De la Fuentek, Charles Chaplinen esaldi honekin agurtu baita: "Izan zu, eta saiatu zoriontsua izaten. Baina gauza guztien gainetik, izan zu".

Testua
IURE EIZAGIRRE

Errigora

ESKARIAK HERRIAN EGIN ETA JASOKO DITUGU BERRIRO

Eskubide Sozialen Kartak hainbat urtez egindako lan txukunak etenaldia izan zuen, taldeak bertan behera utzi baitzuen bere jarduna. Ondorioz, Errigorak martxan jarritako azken kanpainetako produktuak internetez edo beste herriren batean eskatu eta jaso behar izan dira. Aurrerantzean, Artzape Euskara Elkarteak hartuko du ardura hori.

Zarauztik jaso genuen deia, Errigoraren berri eman eta Getarian egitasmoari berriro heltzeko prest egongo ginatekeen galdetuz. Behar bagenuen pentsatzeko esan ziguten arren, esekitzerako bazuen erantzuna: baietz. Errigoraren lana ezaguna genuen erredakzioan, behin baino gehiagotan aipatua genuen norbaitek jarraitu beharko liokeela Eskubide Sozialen Kartak egindako lanari, baita euskara elkartea litzatekeela horretarako espazioa ere. Sareak eratzea ezinbestekoa baita, hala euskararentzat zein euskalgintzarentzat nola lurreko ekoizleentzat.

Hain zuzen ere, gure hizkuntza eta elikadura burujabetza dira Errigoraren ardatzetako bi. Nafarroa hegoaldea eta erdialdea ditu eragin gune; bertako produktuak saltzen dituzte Euskal Herri osoan eta batutakoaren zati bat euskalgintzara bideratzen dute. Auzolana dute horretarako beste oinarria, horrek ahalbidetzen baitie herrietan ekoizlearen etxeko prezio berean saltzea.

Udaberriko kanpaina

Iazko udazkeneko kanpainaren aparretan oraindik, udaberrikoari ekingo diote datozen egunetan. Hortaz, oliba-olio birjina estra —bost litroka—, eta arroza, pasta eta kontserbak —12 ontzika— eskatzeko aukera egongo da martxoaren 4tik 24ra.

Pandemia tarteko, eskaerak internetez eta telefonoz egitea lehenetsi dute, errigora.eus helbidean edo 848 871 223 zenbakian. Dena den, nahi eta behar duenarentzat, informazio mahaia jarriko dugu Artzapeko kideok —momentuko baldintzek ahalbidetzen badute— martxoaren 18an, 18:00etan, Berdura plazan. Bertan ere egin ahal izango dira eskariak. Jaso, aldiz, apirilaren bigarren hamabostaldian, gurean, Getarian.

Errigorakoek aurten dioskuten moduan, "jan dezagun pentsatzen dugunaren arabera. Elikadura-sistema bertso bat balitz bezala, has gaitezen plateretik. Bete dezagun tokiko uztarekin. Kontsumi ditzagun eskala txikian ekoitzitako elikagaiak".

Kiroldegiko zozketa

Hilabete honetan, Sahatsaga kiroldegiaren eskutik, **spinning ikastarorako hilabeteko bonua** zozkatu dugu Artzapeko bazkideen artean.

Martxoko irabazlea:

Maria Rosario Ibarbia

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.
Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

elan euskadi
ONGD - GGKE

Esklaboak egungo Brasilen

Madalena Gordianok 40 urte luzez esklabo gisa egin zuen lan Brasilgo familia aberats baten mesedetan, joan den azaroaren 27an askatu zuten arte. Brasilgo programarik ezagunena omen den *Fantástico* telebista saioan eman zuten albistea eta zirrara handia sortu zuen herrialdean. Zortzi urte zituela bahitu zuten Madalena eta 46 urterekin askatu. Familia horrek hartu zuen etxerako, umea zela eskean atea jo zuen egunean. Urte luze horietan guztietan ez du ordainsaririk jaso, ez hezkuntzarik ez eta tratu gizatiarrik ere. Aurkitu zutenean, leihorik gabeko gelaxka batean egiten zuen lo; hiru kamiseta zituen, hori omen zen bere ondasun guztia. Gehiago jakiteko: https://www.youtube.com/watch?v=EoPCvdrOUW8.

Iaz, beste 15 "neskame" askatu zituzten.

Brasilen esklabotzak hiru mende luze iraun zuen eta horren ondorioak utzi ditu agerian Madalenaren kasuak. Izan ere, Brasil izan zen esklabotasuna bertan behera uzten munduko azken herrialdea, 1888an, hain zuzen ere. Baina ez zen horrekin amaitu.

Etxeetan "neskame", kafe-plantazioetan, abeltzaintzan, meatzaritzan eta beste hainbat arlotan milaka eta milaka helduk eta umek egiten dute lan esklabotasun egoeran oraindik ere. 1996 eta 2014 urteen artean, 48.700 esklabo askatu zituzten Brasilen; gizalegearen kontrako baldintzetan dirauten zati txiki bat baino ez. 1995. urtean, gobernuak aitortu egin zuen jakin bazekiela toki askotan esklabotza indarrean zegoela Brasilen. Gauza batzuk agerian jartzen eta aldatzen hasi ziren eta nazioarteko herrialde askoren aitortza jaso zuen Brasilek esklabotzaren aurka hartu zituen neurriengatik, lortu zituen eta lortu izan dituen emaitzengatik. Hala ere, alarma guztiak piztuta daude, azken urteetan atzerako joera sumatu dutelako adituek.

Brasilgo politikari askok lotura zuzena dute nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearekin, esklabotasun-egoera handienak ematen diren sektoreekin, hain zuzen ere. Politikari asko *fazendeiro*ak dira, hau da, lurjabe handiak, eta hori da, urte luzez, Brasilgo legebiltzarreko lobbyrik indartsuena. 2015ean, esaterako, Nekazaritza Batzordeak lege proiektu bat onartu zuen *jornada exaustiva* eta *condições degradantes de trabalho* terminoak ezabatu zituena.

Hurbilagoko kasuak aipatzearren, Espainiako estatuan Inditex marka ezaguna ere esklabotasunarekin lotu zuten 2011n, baldintza horietan lan egiten zuten 15 langile askatu zituztenean. Peruko eta Boliviako immigranteak ziren guztiak, batzuk adin txikikoak, eta Amancio Ortegaren enpresak azpikontratatutako enpresa batentzat egiten zuten lan, 16 ordu egunean. Lantoki eta bizitoki funtzioak betetzen zituen gela txiki batean aurkitu zituzten guztiak pilatuta eta baldintza gogorretan. Kasu hartan, Ortegaren enpresak eta Brasilgo fiskaltzak akordioa sinatu zuten eta isun batekin konpondu zuten auzia.

Azpikontratazioa, langileen hezkuntza-maila txikia, fiskalizazio eskasa eta enpresari zein nekazari eta abeltzainen erabateko zigorgabetasuna dira esklabotzak Brasilen indartsu jarraitzeko arrazoi nagusiak. 1997az geroztik, 2.500 enpresari baino gehiago zigortu dituzte esklabotzarekin lotuta; horietako bakar batek ere ez du zigorra osorik bete.

Bi urterako erosketak

Gizakiontzat jatea eta edatea ezinbesteko zerbait da. Jatean elikatu egiten gara, plazera sorrarazten digu eta gizartean sozializatzeko bide ere ematen digu. Hain da berezia mahai baten inguruan jatera esertzea, ezen, kuadrilletan, elkarteetako bazkide diren horiek, ofizialki ezarri gabeko maila berezidun kideak izan ohi dira, erosketak beraiek egin eta sukaldatzen baitute.

Antzerako zerbait gertatzen zen orain 500 urte itsas bidaietan. Bidaietarako janariaren ardura zuen hark, *despentsalaria* deiturikoak, ofizialen maila zuen. Pertsona honek elikagaien banaketa eta erregistroa eramateko ardura zuen.

Bidaia horietan, mundu biraren kasuan zehazki, *bizkotxo* izeneko ogia ezinbesteko elikagaia zen. Gariz eginiko elikagai hau oso nutritiboa zen eta bi urte edo gehiago iraun zezakeen, nahiz eta harria bezain gogorra jarri. Gogortasunaz gain, orea gutxi legamitua egon ohi zen eta horrek digestioan ez zuen laguntzen.

Ur gutxi eramaten zen, denborarekin edangaitza bilakatzen baita. Hori dela eta itsasontzietako edari nagusia ardoa izaten zen. Ardoak egarria asetzeaz gain, itsasgizonen animoa hauspotzen laguntzen zuen eta itsas-lanetarako ezinbestekoa zen.

Bizkotxoaz eta ardoaz gain, menua babek, txitxirioek, urdaiak edo okela gazituak osatzen zuten, besteak beste. Behi zezina eta txerrikia, aldiz, kapitainen eta armadako ofizialen artean banatzen zuten. Julian Diaz Alonsoren *J.S. Elkanoren aztarnaren bila* liburuan irakurri ahal izan dugunez, baratxuriek oso fama ona zuten, 500 sorta eraman baitzituzten. Bestalde, dilistak, mahaspasak eta aranpasa lehorrak gaixoei baino ez emateko erosten ziren. Munduari bira eman zion Victoria naoak, hogeita bi tona eta erdi ogi zeramatzan, hogeita hamasei mila litro ardo, hamalau mila eta bostehun litro ur, mila berrehun litro olio eta arrain eta urdai artean lau tona. Hori guztia bi urteko bidaia baterako kalkulua izan zen.

Janari hori guztia sukaldatzeko lehengaia ere beharrezkoa zuten. Horretarako 40 gurdikada su-egur erosi zituzten eta pentsatu nahi dugu, Elkanok bere testamentuan utzitako parrilletan sukaldatuko zituztela jakiak, besteak beste.

Elkano Fundazioko iturrien arabera, espediziokideek ez zuten elkarrekin jaten, kuadrilletan jaten zuten, kidetasunaren edo jatorriaren arabera.

Hain bidaia luzeak zirenez, janaria fresko mantentzea ezinezkoa zen eta horrek eskorbutoa zekarren. XV. eta XVIII. mendeetako bidaietan protagonismo handia hartu zuen gaixotasun honek izurri moduan. Triskantza handiak eragin zituen batez ere Ozeano Pazifikoan zebiltzan orduko armadetan. Horri aurka egiteko, sagardoa izan ohi zuten itsasontzietan, C bitaminadun edaria baita eta eskorbutoari aurre egiteko aukerakoa. Ziurra ez den arren, iritzi korronte batek dio gaixotasun honek hil zuela Elkano. Beste iritzi korronte batek, aldiz, zera dio, itsasoan arrantzatutako arrain bat jan ostean *ciguatera*k jota hil zela.

Eta nola ez, bazkalosteko kantu eta abestiak ez ziren falta izan mundu biran. Dokumentazioak dioenez, danbor bat eta lau pandero ere ontziratu zituzten nao bakoitzean, denborapasa gisa.

getariako udal liburutegia

Erreferentziazko liburuen antolamendu berriaz

Liburutegi guztietan egoten dira erreferentziazko liburuak deitzen ditugunak. Gaiak landu eta mundua ulertzen laguntzen digute baina, ez-fikziotik. Ikasketetarako, ikerketarako edota kontsultarako erabiltzen ditugu horiek.

Material mota hau badugu Getariako liburutegian ere, noski, bai helduen bai haurren gunean. Eta ikusiko zenuten bezala, helduen gunekoarekin gora eta behera gabiltza azkenaldian. Izan ere, Getariako liburutegiak atal honetan dituen liburuentzat sailkapen edo antolamendu berri bat sortzen aritu gara iazko otsailetik. Bertan ditugun gai guztiak modu sinple eta errazagoan islatzen lagunduko digun antolamendua diseinatu nahi izan dugu, baita, gero, eduki zehatzen bat topatzeko garaian, bidea erraztuko diguna ere. Funts eta liburutegi berari Getariako nortasuna indartu nahi izan diogu. Horregatik, Getaria herri bezala ezaugarritu dezaketen gai batzuk lehenetsi ditugu.

Hortaz, bi ideia nagusi hauetatik abiatuta, bi bloke edo multzo nagusitan antolatu dugu funts osoa. Lehenengoari lehentasuna eman eta *Getaria munduan* deitu diogu (oraindik honekin dihardugu); bertan bilduko ditugu Getaria eta Urola Kostari buruz jakintza ezberdinetatik idatzi diren lanak, Getariako sortzaileenak eta Getaria bera herri bezala ezaugarritzen duten hainbat gai eta hauen azpigaien materiala, hala nola, *Itsasoa*, *Bidaiak eta abenturak*, eta *Migrazioa*. Juan Sebastian Elkano eta berarekin egon ziren guztien arrasto bidaiari eta abenturazalean, nahiz horrek guztiak eragin ditzakeen hausnarketetan oinarrituta dago, gehienbat.

Migrazioa eta *Mundu egoera* atalak ere lehen multzo honekin lotu nahi izan ditugu. Izan ere, bidaiek eta abenturek lehengo eta egungo migrazioez pentsatu eta hausnartzera bideratu gaitzakete eta migrazioaren gaiak, aldi berean, mugimendu migratorioen arrazoietan hausnartzen gelditzen bagara, unean uneko mundu egoeraz pentsatu eta hausnartzera. Mundu biraren ideiak berak ere, egungo munduaren nolakotasunaz galdetzera eraman gaitzake.



Bigarren multzoa —mundu egoeraren hariari jarraitzen dio— jadanik bukatuta dugu eta *Euskal Herria eta inguratzen gaituen mundua* deitu dugu. Bertan, liburutegian ditugun beste gai guztiak eta hauen azpigaiak bildu ditugu, gure ingurua eta mundua ulertzeko ezinbestekoak. Hementxe topatuko ditugu, besteak beste, Euskal Herriko eta hemendik kanpoko lan munduaz, genero desorekaz, hizkuntzaren munduaz eta aniztasunaz, usadioez eta folkloreez, historiaz, hazkuntzaz eta hezkuntzaz, elikaduraz, osasunaz, aisialdiaz, sormenaz edota, bere osotasunean, bizitzaz hausnartzen lagundu diezaguketen materialak.

Ezagutzaren antolamendu honen bidez, munduan zehar murgiltzeko, bidaiatzeko, erantzunak topatzeko (edo nahiago baduzue, galtzeko) modu berri bat proposatu nahi izan dizuegu, funtsean, helduleku bat eman. Liburutegietan, azkenean, hori guztia egiten baitugu, ezta? Animatzen bazarete, hemen izango gara.

Getariako inauteri bereziak

Kaixo denoi,

Getariako Iturzaeta Eskolako Lehen Hezkuntzako 6B taldeko ikasleak gara eta aurtengo inauteriak Covid 19aren ondorioz nolakoak izan diren kontatzera gatoz.

Eskolan ezin izan dugu, urtero bezala, ospakizunik egin. Orain arte kiroldegian elkartzen ginen denok dantzak eta jolasak egiteko. Aurten, ordea, bakoitzak bere gelan egin behar izan dugu dantza. Jolasak ere gelan egin behar izan ditugu. Asmoa jolasak gelaka kalean egitea zen, baina eguraldi txarra egin zuenez, ezin izan ginen kanpora irten eta jolasak ere gela barruan egin genituen. Gainera, urtero, 6. mailakoak arduratzen dira jolasak prestatzeaz eta aurten, beraz, guri tokatzen zitzaigun. Baina ezin izan dugu ardura hori hartu.

Musukoarekin egon arren, mozorrotuta etorri ginen eskolara eta urtero bezala, txokolate tableta pusketa eta opila banatu ziguten merendatzeko. Hori bai, eskolatik kanpo jan behar izan genuen merienda, eskola barruan ezin baita jan Covid neurriak direla eta.

Herri mailan ere aurtengo inauteriak oso ezberdinak izan dira. Kaleetan oso jende gutxi ikusi dugu mozorrotuta eta herriko plazan egiten zen mozorro lehiaketa bertan behera geratu zen.

Aurtengo inauteriak oso tristeak eta aspergarriak izan dira, ezin izan ditugulako hainbat gauza egin. Baina aldi berean, ulertzen dugu aurtengo egoera berezia dela eta ondorioz, ezin zela beste urteetan bezala festarik ospatu.

Hala ere, baikorrak gara eta seguru gaude datorren urtean inauteriak hobeto ospatu ahal izango ditugula denok!

ZAINTZA EGUNAK

Martxoaren 29tik 31ra.

FULDAIN FARMAZIA



EDURNE IRIGOIEN

PLIST & PLAST

ANDRES ALBERDI

Kelepario

Parrillako arraina maneatu edo gatzozpintzeko erabiltzen den *mejunje*ari deritzo horrela Getarian. Erretegi bakoitzak berea du eta isilpe osoan gordetzen du nahastura horrek zein osagai dituen: olioa, ozpina, baratxuria, perexila, piper-mina... Hitza ez da ageri hiztegietan, eta ez da entzuten Getariatik kanpora. Duela hamarkada batzuetatik honako hitza da. 1970.eko hamarkadaren hasieran entzun nion lehenengoz Txokoko jabea zen Ino Gerekari. *Alioli* hitza ere (katalanezko *allioli*-tik datorrena —*all*/baratxuri eta *oli*/olioa—) erabiltzen zuen. Euskal hiztegietan bi hitz hauek ageri dira horien ordainetan: *ozpin-olioa*, *baratxuri-olioa*. Gaurko hitza *La madre QUE LE PARIO!* esapidetik dator (>*kelepario*). Jaki pikante eta minez eginiko edabea izanik, dastatuz gero, ahoan erredura sortzen du eta, erreakzioz, erdarazko esapide espresibo hori eragiten du. Hor du hitzak abiapuntua.

Hitz lexikalizatua deitzen zaio era horretako hitz bati: esaldi edo sintagma batetik sortutako unitate lexikoari. Era horretara sortutako hitzak dira beste hauek ere: *dominstiku* (< latinezko *dominus tecum*), *mekaguen* (<*me cago en*), *auskalo* (<*a buscarlo*), *(e)txaferoa* (<*echa fuegoa*), *arrozkoletxe*, *mesanotxe*...

Oharra: Beñat Gereka Bikuñak egin digu galde hitz honi buruz.

Iribar jatetxeko Manu.

Kaia-Kaipe jatetxeko Pello.

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com*era ezagutzen dituzun hitzak.

2021eko MARTXOA

Agenda www.artzape.eus webgunean eguneratzen dugu. Adi egon!

28 Igandea
Ane filmaren emanaldia
Ordua: *19:00*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskolako aretoa*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Edukiera mugatua izango da, hortaz, sarrera beharko da.
Sinopsia: Ane, AHTko obretako segurtasun zaintzaileetako baten alaba, duela bi egun desagertu da, eta gurasoak bananduta eta komunikazio arazoekin, urduri eta kezkatuta hasi dira haren bila.

7 Igandea
Mariñak taldearen barne formakuntza tailerra
Talde feministan parte hartzeko aukera zabalik dago. Horretarako marinakgtf@gmail.com helbidera idatzi edo taldekide bati esan dakioke.

Otsandreak korrika helduentzako kontaketa
Ordua: *19:00*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskola*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Gonbidapenak martxoaren 1etik aurrera hartu beharko dira turismo bulegoan. Clarissa Pinkola Estesen "Mujeres que corren con los lobos" liburutik hartutako zenbait ipuin eta istorioren kontaketa eta irakurketa, kultura arteko mito aberatsak, ipuinak eta istorioak agertzen dituena, emakumeek beren indarra eta osasuna berreskura dezaten eta, batez ere, goza dezaten.

18 Osteguna
Errigorako produktuak eskatzeko mahaia
Ordua: *18:00*
Lekua: *Berdura plaza*
Antolatzailea: *Artzape Euskara Elkartea*

21 Igandea
Do re ni family ikuskizuna
Ordua: *17:30*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskola*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Musika, dantza eta antzerkia uztartzen dituen familia osoarentzako ikuskizuna. Edukiera mugatua izango da eta sarrerak martxoaren 15etik aurrera egongo dira turismo bulegoan.

25 Osteguna
Katukale irakurle taldearen saioa
Ordua: *18:00*
Lekua: *Alhondiga*
Sally Rooneyren "Jende normala" liburua aztertuko dute Uxue Alberdiren gidaritzapean.

27 Larunbata
Bertso Eguna
Lekua: *Cristobal Balenciaga Museoa*
Alaia Martin, Uxue Alberdi eta Unai Iturriaga ariko dira bertsotan, Maite Berriozabal gai-jartzaile. Aretorako sarrerak 12 eurotan daude salgai eta Internetekoak 5 eurotan www.bertsosarrerak.eus atarian.

Cristobal Balenciaga Museoa

1-21 Al.-Ig.
Goi mailako joskintzako teknikak. Jantzigintza online ikastaroa
Ikastaroaren bigarren edizio honek Balenciaga etxeko jantzigintza-tailerren metodo espezifikoetarako hurbilketa proposatzen du, jakaren elementu jakin batzuk ardatz harturik. Ikastaroa zazpi modulutan banatuta dago eta ikus-entzunezko edukiak eta online tutoretza saioak izango ditu ardatz. Harremanetarako bideak: 943 00 47 77 eta info@fbalenciaga.com.

Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta
Mantenua
Informatika akademia
Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com

Saiazgetaria
HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa

T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

bitxiak baino gehiago
glu glu
Tel. 943 14 03 75
glu16glu@gmail.com

ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK
680880905
676532067
GETARIA
www.eraberri.com

Josune Uzin Berasaluze
Fisioterapeuta
EFEO zenbakia: 1.100
eskura
fisioterapia zentroa
697 961 208
Elkano kalea 9, behea

EROSKI-SANTIYO JANARI DENDA
SAHATSA JANTZI DENDA
NIEVES ARRANDEGIA
ELKANO ARRANDEGIA
GETARIANO GOZOTEGIA, KAFETEGIA
IZARRI OKINDEGIA, GOZOTEGIA, KAFETEGIA GANIX ARAKISTAIN OSTEOPATIA ZENTROA DONA-DONI AZOKI DENDA
HARRITARTE LIBURU DENDA MAIDER FISIOTERAPIA, OSTEOPATIA, NUTRIZIOA CETARIA ITSAS DENDA GLUGLU BITXI DENDA
EUGENIO URANGA ASEGURUAK IZASKUN ILE APAINDEGIA TABAKO DENDA AMONA MARIA DELICATESSEN
MAISOR KONTSERBAK BALENCIAGA ODONTOLOGIA ZENTROA ZUHAITZ HELAR DENDA ILE-ARGI ILE APAINDEGIA
SALANORT GETARIAKO ARTISAU KONTSERBAK SOPAS ARGI DENDA BAIGARBI IKEZTEGIA PAKI EDERGINTZA
BABEXA
Getariako dendari elkartea

ASKIZU
FAMILIA ETA TALDEENTZAT
ESKAINTZA BEREZIAK
943 83 36 41
www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	Zenbatekoa
4,3 x 4	*12 euro*
9 x 4	*24 euro*
13,6 x 4	*36 euro*
9 x 8	*48 euro*
13,6 x 8	*72 euro*
orri erdia	*96 euro*

errigora
MARTXOAK 4 - 24
Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura
Plateretik
baratzera
Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra -5 litroka- eta arroza, pasta eta kontserbak -12 ontzika- euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.
Eskatu eta jaso Getarian